# Sar dadila kalabazan

45-60 minutu / +5 urte

Ikasleak talde txikitan banatuko ditugu eta talde bakoitzak alfonbra bat izango du. Alfonbrarik ez badugu, ikasleek egindako marrazkiak erabil ditzakegu, baino kontuz, 15x15 zm-ko tarteak errespetatu.

Talde bakoitzak ipuin bat asmatu behar du. Robota izango da protagonista eta alfonbran irudikaturiko mundutik mugituko da.

Taldeko kide bakoitzak, robota maparen toki batera eraman eta bertan gertatzen dena ahoz azaldu beharko du.

Ipuin guztiak prest daudenean, taldeek denon aurrean kontatuko dituzte.




| Helburuak | Konpetentziak | Materiala |
|---|---|---|
| • Ipuinak asmatzea<br>• Jendea urrean hitz egitea | **Dizplinartekoak**<br>• Hizkuntza OK1<br><br>**Metadiziplinarrak**<br>• Pentsatzen ikasi OK8 | • Beebot robota<br>• Alfonbra |

| Aukera gehiago |
|---|
| 1. Robota mozorrotu dezakegu.<br>2. Ipuinaren sekuentzia definitzeko, papera eta arkatza erabiliz, “story board” bat egin daiteke. Kokapenak definitu, hauen orden egokia ezarri eta kokapen bakoitzean gertatuko dena marrazki batez adierazi. Gero robota toki batetik bestera mugitzeko eman beharreko aginduak zeintzuk diren aztertu beharko da.<br>3. Robotaren ibilbidea sekuentziatzeko sekuentzia txartelak erabil daitezke. |